

**Larraintzako**

IKASTETXEA

## URTEKO PROGRAMAZIOA

<b>IKASTURTEA</b>	2019-2020	<b>IRAKASLEA</b>	Aitor Mozo
<b>MAILA</b>	1. DBH	<b>ARLOA</b>	Gorputz Hezkuntza

### HELBURUAK, OINARRIZKO GAITASUNAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumak ezartzen duena.


[http://www.navarra.es/home\\_es/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/](http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/)

X	HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA	X	GAITASUN SOZIAL ETA ZIBIKOAK
X	MATEMATIKA GAITASUNA ETA ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO OINARRIZKO GAITASUNAK	X	EKIMENA ETA EKINTZAIETZA
X	GAITASUN DIGITALA	X	KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPEN KULTURALAK
X	IKASTEN IKASTEA		

### EDUKIEN DENBORALIZAZIOA

1. ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"><li>- Erronka Fisiko Kooperatiboak</li><li>- Jarduera fisiko osasuntsua I</li><li>- Bihotz-Biriketako Bizkortzea</li></ul>
2. ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"><li>- Kirol soinketa</li><li>- Euskal dantzak / Itzalen antzerkia</li><li>- Kirol alternatiboak</li></ul>
3. ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"><li>- Errugbia</li><li>- Naturan Murgiltzen I</li></ul>

Informazio hau behin behinekoa da, ikasturtea aurrea joan ahala aldaketak egon daitezke.



**Larraintzako**

IKASTETXEA

## **URTEKO PROGRAMAZIOA**

### **KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK**

#### **Ebaluazio irizpideak:**

Indarrean dagoen araudian curriculumerako ezarritakoak eta institutuko idazkaritzan hezkuntza komunitatearen eskura dagoen urteko programazioan zehazturik.

- DBHko curriculum, 24/2015 Foru Dekretua.

#### **Ebaluazioa:**

- **JARRERA (%50):**

- Puntualtasuna (txirrina eta gero 5' klasea hasteko)
- Jantzera eta garbitasuna (Kirol arropa egokia beharko da klaseetan parte hartzeko. Dutxa hartu ondoren aldatzeko arropa ekarri beharko da. Batzuetan irakasleak "dutxa-erdia" erabaki dezake (aurpegi, esku eta besazpia garbitu eta kamiseta aldatu).
- Materiala eta instalazioak (behar bezala zaindu behar dira)
- Parte hartzea (aktiboa izan behar da eta interesa erakutsi).
- Euskararen erabilpena.

- **PROZEDURAK (%30):** Froga praktikoak edo fisikoak. Testak. Partiduak.

- **KONTZEPTUAK (%20):** Azterketa teorikoak, lanak, etab.

● **Irakasgaia gainditzeko** eta batz bestekoa egin ahal izateko, **gutxienez 3** atera behar da **atal bakoitzean** (teoria, praktika eta jarrera). Hau betetzen bada, **batz bestekoak 5 eman behar du** ebaluaketa gainditzeko.

● **Derrigorrezkoa** izango da **proba** guztiak egitea eta eskatutako lan guztiak entregatzea ebaluaketa gainditzeko.


● Ikasle batek ebaluaketa batean **lau orduko tartea betetzen badu lesionatuta** edo klasea ez duela egin (nahiz eta justifikaziorik izan), azterketa edo lan berezi bat egin beharko du.

#### **AZPIMARRATZEKOA:**

-Tolerantzia, kirol zuzentasuna eta errespetua azaltzea, bai partehartzaile gisa eta bai ikusle gisa.

-Klase saioetan ematen diren funtzio desberdinak onartzea.

-Lanarekiko jarrera jarraikorra: klasearen dinamikarako ezkorrak izaten ahal diren jarrerek, praktika ez gainditzeko suposatzen ahal dute. Ikaslearen progresio pertsonala baloratuko da.



**Larraintzako**

IKASTETXEA

## **URTEKO PROGRAMAZIOA**

-Jarduera fisikoa burutu ondoren higie eta garbitasunaren kontzientzia hartu arropa garbia ipiniz.

### **BERRESKURAPEN SISTEMA**

#### **BERRESKURAPENA**


- **Ebaluazioaren berreskurapena.** Ebaluaketa eta gero, froga berezi bat izango da eduki teoriko eta motorrak gainditzeko. Jarrera atalean, hurrengo ebaluazioan atal hau gainditzearekin nahikoa izango da. Jarrera oso txarra izan baldin bada, jarrerarekin zerikusia duen lan bat burutu beharko da.
- **Ez ohiko deialdia.** Ekainean ere, eduki teoriko eta motorrak gainditzeko frogak izango dira (U.D.-aren arabera lan berezi bat egingen da). Jarreragatik gainditu gabe gelditzen diren ikasleak lan edo irakurketa berezi bat egingen dute. Lan hauek, kirol baloreekin, osasunarekin edo jarduera fisikoekin izango dute erlazioa.
- **Gainditu gabekoen berreskurapena.** Aurreko ikasturteko arloa gainditu gabe izanez gero lehenengo 2 ebaluazioak gaindituta berreskuratuko da. Hala ez bada, apirilean azterketa bakarra egingo da. Irailerako aipatutako lanak eta froga praktikoak egin beharko dira. Apirilean ez bada gainditzen, ekainerako geratuko da.

### **BESTELAKOAK: baliabideak, metodologia, aniztasuna**

#### **BALIABIDEAK**

##### **Azalpen teorikoak eta apunteak:**

- Saioan egin behar dugunaren ahozko informazioa emateaz gain, batzuetan (unitate didaktikoaren arabera) zenbait azalpen teoriko ere emanen dira (testak, oinarrizko gorputz gaitasunak, etab).
- Apunteak ikasleari eta programazioaren atal ezberdinei (helburuei, edukiei, etab) egokituak egongo dira. Unitate didaktiko bakoitzaren hasieran ematen zaizkie (behar izanez gero), klasean emandako ezagutzak zabaltzeko eta asimilatzen laguntzeko. Apunte hauek, ikasleek osatu eta alderatu beharko dituzte beraien esperientziei esker.



**Larraintzako**

IKASTETXEA

## **URTEKO PROGRAMAZIOA**

### **METODOLOGIA**

Hiru ardatz metodologikorekin lan egingo dugu:

- **Beregaintasuna:** Azken helburuetako bat ikasleak kirol eta josteta jarduerak behar bezalako beregaintasun maila batekin burutzea da. Beregaintasun fase honetara iristeko lehenik zuzendaritzapeko fasea eman beharko da irakaslea protagonista izanik, ondoren protagonismoa ikasleari emateko.
- **Taldeko lana:** Talde lanak dituen abantailak aprobetxatzen dira: ikuspegi ezberdinak, ikaste endogenoa (taldearen barruan) eta exogenoa (taldeak besteei), etab.
- **Ingurumeneko errealitatearekiko loturak:** Arloaren erlazioak aisialdiarekin, osasunarekin, naturarekin, etab.

### **ANIZTASUNA**

Gorputz Hezkuntza klaseetan ikasle guztiak, dituzten gabeziak dituztelarik, integratu beharko dira modu eraginkor batez

#### **Praktikatik exentu dauden ikasleak:**

- Medikuaren agiria edo guraso/tutorearen idatzia ekarri beharko da.
- Klasera etorri beharko da eta irakasle eta ikaskideei lagunduko die (irakasleak erabakiko du lesioaren arabera).
- Lan edo azterketa bat egingo du ebaluaketa batean 4 saio edo gehiago galtzen baditu edo praktikak egiten ez baditu.

Sinadura  
Aitor Mozo

Larraintzarren 2019ko irailaren 6an